


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2012ko URRIA

Euskal AEko industri jarduera %7,1 jaitsi zen 2012ko urrian

Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin, 2012ko irailarekin alderatuta %0,1 igo zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2012ko urrian %7,1murriztu zen Euskal AEko industria produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2011ko hil beraren aldean. Urtaroen eragina zuzenduta, %0,1 igo zen Euskal AEko industri produkzioa, 2012ko irailarekin alderatuta.

1. grafikoa. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Hilez-hilekoak. Urte arteko hazkunde-tasak. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea (IPI)

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2012ko urriko indizearen bilakaerak Energiaren igoera (%6,5) dakar, 2011koaren aldean; Ekipo-ondasunak %8,9 jaitsi dira, Bitarteko ondasunak %8,5. Kontsumo-ondasunak %5,5 jaitsi dira guztira: Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %8,5 jaitsi dira eta Kontsumo-ondasun iraunkorrak %5,9 igo.

2012ko irailaren aldean, 2012ko urriko hil arteko aldakuntza bestelakoa izan zen industri sektore handietan. Ekipo-ondasunak %0,3 jaitsi dira, Bitarteko ondasunak %0,4; Energia, %6,7 igo da; eta Kontsumo-ondasunak %0,4. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun iraunkorrak %7,2 igo dira eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %1,3 jaitsi.

Sektore nagusi guztietan jaitsierak ditugu 2012ko urrian aurreko urteko hil beraren aldean. *Kautxu eta plastikoan* %15,4ko jaitsiera, *Garraio materialean* %11,3; *Material eta Ekipo elektrikoan* %12,5.

1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-4,2
09 - Kautxua eta plastikoak	-15,4
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	-9,8
13 - Makineria eta tresneria	-5,5
14 - Garraio-materiala	-11,3
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-10,4
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-3,0
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-12,5

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Lurraldeetan, Industri Produkzioaren Indizearen urriko urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiruretan: Araban %11,0 jaitsi da, Gipuzkoan %7,8, Bizkaian %4,1. Hil artean, 2012ko irailaren aldean, Bizkaian %3,2 hazi da, Araban %1,8 murritu eta Gipuzkoan %1,9.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Hazkunde-tasak. 2012 urria (p)

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	2012Urr / 2011Urr	M(2012Urr) / M(2011Urr) *	2012Urr / 2012Ira	2012Ira / 2012Abu
Indize orokorra				
Euskal AE	-7,1	-7,4	0,1	-2,9
Araba/Álava	-11,0	-5,6	-1,8	-2,3
Bizkaia	-4,1	-9,2	3,2	-6,8
Gipuzkoa	-7,8	-6,6	-1,9	0,7
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-5,5	-5,3	0,4	-7,9
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	5,9	-7,1	7,2	-20,1
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-8,5	-4,9	-1,3	-4,2
Ekipo-ondasunak	-8,9	-5,8	-0,3	-1,1
Bitarteko ondasunak	-8,5	-8,3	-0,4	-5,4
Energia	6,5	-9,9	6,7	-2,5

(*) 2012ko urtarriletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2011ko aldi beraren aldean

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Argibide gehiago eskuratzeko:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](http://EuskalEstatistikaErakundea/InstitutoVascodeEstadística)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua